

# Mintxeta, atleten olinpoa







# ESKERRIK ASKO!

**A**rrakastatsua izan da aurten ere Elgoibarko Izarraren tonbola, eta arrakasta hori zuei esker da. Eskerrik asko opariak eman dizkiguzuenoi, oparirik gabe ezingo genuelako tonbolarik antolatu; eskerrik asko, boletoak eroatera etorri zineten herritar guztioi, mila esker tonbolaren aldeko diru ekarpena egin duzuen enpresa guztiei, eta eskerrik asko, baita ere, egunean bertan laguntzera etorri zineten boluntarioiei. Kalegoen plaza ilusioz bete genuen abenduaren 24an, eta zuei guztioi esker, euskararen aldeko tonbola urtetik urtera sendoagoa da. 2025ean ere leku eta ordu berean ikusiko dugu elkar.

.....

■ 2. Estankoa ■ 40-15 Tenis Elkartea ■ 650 Usurbil Bizi ■ Abatetxe landetxea ■ AEK euskaltegia ■ Agurtzane ile apaindegia ■ Ana ile apaindegia ■ Ainara Arnaiz ■ Alain Afflelou ■ Aldaz hortz klinika ■ Alfonso Guillo ■ Alire estetika ■ Alcorta Forging Group ■ Alkorta bakailauak ■ Altzola Berasetta baserria ■ Amagoia gozo denda ■ Amaia fruta denda ■ Ametsa kafetegia ■ Ana Mosacua ■ Ane arte tailerra ■ Ander Mujika ■ Andres Alberdi ■ Antxustegi zeramikak ■ Anua errektifikatuak ■ Aranburu bitxi denda ■ Aranzadi ■ Aauri lurindegia ■ Armueta harategia ■ Arrizabal Elkartea SL ■ Astigarraga Kirolak ■ Atelier Oihana ■ Atxutxiamaika ■ Azkue argazkiak ■ Azpi'S Bags ■ Barrutia optika ■ Beitia Arriola osteopatia ■ Beitia Arriola hortz klinika ■ Belaustegi jatetxea ■ Beristain Mekanizatuak ■ Berkoa S. Koop. ■ Bikustik ■ Bitxibizibitxi ■ Bizkor bizikletak ■ Bronymec ■ Basque Sport Trainers ■ Carmel goxokiak ■ C.D. Elgoibar ■ Catt Morkaiko Trail Taldea ■ Cristina Garcia estetika eta Terapia ■ Naturalak ■ Darnobat ■ Dantzan.eus ■ Darama denda-tailerra ■ Debabe Udal euskaltegia ■ Dislegi Debabarrena Elkartea ■ Doña Mercedes okindegia ■ Ecenarro lantzeria ■ Egur arte tailerra ■ Eizagirre okindegia ■ Elustondo ■ El Gautxo pizzeria ■ Elgoibarko Izarra ■ Elgoibarko musika banda ■ Elgoibarko Udala ■ Elgoibarko Udal Ludoteka ■ Elgokar auto garbiketak ■ Elkar ■ Enean ■ Eroski Maala ■ Errigora taldea ■ Errosario hagin klinika ■ Esther Iburguren ■ EITB ■ Etxepe ■ Etxe-Tar ■ Euskal Herrian Euskaraz ■ Euskaltzaleon Topagunea ■ Exclusivas Pelegrin ■ Fadak ile apaindegia ■ Farmazabal ■ G&M jantzi denda ■ Gaindu ■ Gararock taldea ■ Garitaonandia botika ■ Gertu fisioterapia ■ Goimek ■ Gora Musika ■ Gorbea taberna ■ Gotzon Garate Udal liburutegia ■ Grabados Laser 2D ■ Hair'S ile apaindegia ■ Henko arropa-denda ■ Herri Eskola ■ Ibai-Ondo erretegia ■ Iban Urizar ■ Ibarrenea okindegia ■ Ibon Serrano ■ Idama ile apaindegia ■ IMH Campus ■ Makina Erreminta Museoa ■ Iñigo Azpiroz ■ In Leike Kultur Elkartea ■ Industrias Banat ■ Industrias Metala ■ Ipar Irrintzi eski taldea ■ Ipintza margoak ■ Iriondo Altzariak ■ Iriondo Kirolak ■ Irune Arriola Andonegi botika ■ Irune Iriondo ■ Iturri taberna ■ Izakara estudioa ■ Jai Alai taberna ■ Janire Erre ■ Jakoba Erreondo ■ Jasone Osoro ■ Jesus Mari Makazaga ■ Jon Gurrutxaga ■ Jon Ander Olasagasti ■ Jon Magunazelaia ■ Jo Ta Sua ■ Jose Antonio ile apaindegia ■ Juantxo burdindegia ■ Judash musika taldea ■ Kala lora denda ■ Karkizano mertzeria ■ Katxalote diseinuak ■ Kilimon Trail (MTE) ■ Kilometroak 25 ■ King-Kong taberna ■ Kiñu ■ Kresala Studio ■ Kukulaisi Elkartea ■ Kutxabank ■ Laboral Kutxa Txirringulari taldea ■ Lagun Taldea Txirringulari Elkartea ■ Lagunak Textil-Hogar ■ Lanbroa taberna ■ Larre okindegia ■ Leire ile apaindegia ■ Lete jantzi denda ■ Lizagarzar sagartokixa ■ Lizardi ■ Luma ilea apaindegia ■ Maddi bitxiak ■ Magi bitxiak ■ Mahats ardandegia ■ Maite Rementería ■ Malape taberna ■ Mancisidor ■ Mapfre aseguruak ■ Marcajes Tellería ■ Maria Urizar ile apaindegia ■ Martina Barinagarrementeria ■ Mausitxa baserria ■ Mauxitxa txaranga ■ MGS Seguros ■ Mekanosa ■ Meraki ile apaindegia ■ Mendaroko Udala ■ Mendaroko liburutegia ■ Milar Bire elektrogailuak ■ Mintxeta taberna ■ Mintxeta Atletismo Taldea ■ Morkaiko Mendizale Elkartea ■ MTE ■ Muzak musika taldea ■ Naiz komunikabideak ■ Nalai oinetakoak ■ Nik Behar Dut diseinua ■ Noaua! Kultur Elkartea ■ Nuala Elkartea ■ Oin berri podologia zentrua ■ Olaia Martinez estetika zentroa ■ Olaia Irigoien ■ Olalsa ■ On informatika ■ Patxi Azpiroz ■ Patxi harategia ■ Pitxintxu opari denda ■ Puntueus fundazioa ■ Real Sociedad fundazioa ■ Roteta elektrizitate ■ Rural Kutxa ■ Sahatxu harategia ■ Sanlo Eskubaloi taldea ■ Sigma jatetxea ■ Sua Crossfit ■ Suministros EVIA ■ Surya belardenda ■ Swisslan ■ Tantaka taberna ■ Taupada Antzez Taldea ■ Tekniker ■ Txanakakua Elkartea ■ Txapeldun taberna ■ Txaimi ■ Tximi ■ Txitxibildiak ■ Txoteko Ezpata musika taldea ■ Txomin harategia ■ Uxue Alberdi ■ Xarlem Creations ■ Yoga Esentzia ■ Yudego farmazia ■ Zalao Arnaiz ■ Ziarda ■ Zu + Ni ohiolak ■ ...



Argitaratzailea:



Babeslea: Laguntzaileak:



Aita Agirre Kulturgunea, 3, 3. ezk.  
20870 ELGOIBAR

☎ 943 744 112 - 📞 688 655 658

Publizitatea: ☎ 943 743 704 - 📞 688 769 657

[barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus)

[barren.publi@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren.publi@elgoibarkoizarra.eus)

[www.barren.eus](http://www.barren.eus)

BARRENEK bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. Barrenek ez du bere gain hartzen Iritzia, Hitz eta klik eta gutunak ataletan adierazitakoen erantzukizunik. **Koordinatzailea:** Ainhoa Andonegi. **Kazetariak:** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia. **Hizkuntza arduraduna:** Ainara Argoitia. **Publizitatea:** Leire Rubio. **Maketatzailea:** Zaloa Arnaiz. **Atari digitaleko arlo teknikoaren arduraduna:** Aitor Lauzirika. **Administraria:** Amaia Arrizabalaga. **Kolaboratzaileak:** Edurne Izagirre, Paula Heras, Ane Astiazaran, Izaro Etxegibel, Jose Ramon Cabrera, Ane Kortaberria, Asier Guisasola, Maialen Sanchez, Lere Kerexeta, Nagore Cancio **Inprimategia:** Gertu Koop.E. **Tirada:** 4.700 ale. **Lege gordailua:** SS-1.038/92 ISSN 1138-1855.



[facebook.com/barrenaldizkaria](https://facebook.com/barrenaldizkaria)



[x.com/barreneus](https://x.com/barreneus)



[instagram.com/barrenaldizkaria](https://instagram.com/barrenaldizkaria)



[youtube.com/@Elgoibarrennet](https://youtube.com/@Elgoibarrennet)

Izaro Etxegibel Soraluze

Euskara teknikaria

## Banoa, 2025



**"... beti geratuko zaigu aukera geure buruak derrigorrezko zoriontasunaren errefuxiatu izendatzeko"**

**G**ero eta Gabon ez-zale gehiago ezagutzen joan naiz urtetik urtera. Horietakoa naiz ni neure, eta ez dut ezkututzen, ez azken urteetan bederen, nahiz eta antzerki apur bat egiten jarraitzen dudana.

Batek baino gehiagok esan dit Gabon bezperan ohean sartu eta urtarrilaren 7ra arte bertan geratuko litzatekeela, berarengatik balitz. Mainer Galardiri irakurri diot arazoa ez dela familia jasanezina izatea, ez kontsumismoaren zurrumbiloin itotzea, ez nostalgia, ez argiteriaren kutsaduraren kezka, ez obligazioa edo gorputzarekin eta elikadurarekin eduki daitekeen nahasmena; barrurago dagoen zerbait dela, derrigorrezko zoriontasunaren arazoa dela gakoa: eskolara itzuli eta Olentzerok zer ekarri dion asmatu behar duen umearena edo depresioak jotako lagunak Instagramera argazkiak igo behar dituenekoa, berbarako.

Ile-apaindegian ere ikusi dut, asteon. Bezero bat sartu da lore sorta eskutan, ile-apaintzaileentzat da: haren ama ondo tratatzen dutela eta esker ona agertzeko. Negarrez hasi da; gurasoak zahartzen ikusten dituela, eta Gabonak oso tristeak izan direla aurten, eta haienean egon denetan gaizki pasatu duela, eta... Politikak dira loreak, oso, eta, joan denean, galdetu diet ile-apaintzaileei ea usainik ba ote duten; gerturatu egin naiz, eta badute. Gogora etorri zaidana ez dut esan. Han zegoen beste batek bai, esan du. Hildakoen usaina hartzen omen die, amona hil zenean usain hura geratu zitzaiola oroitzen zaitututa. Loreak norbait hiltzen denean bakarrik ukitzen dituela, bestela ez dizkiola inork oparitzen.

Dena den, beti geratuko zaigu aukera geure buruak derrigorrezko zoriontasunaren errefuxiatu izendatzeko. Beti geratuko zaigu Paris. Eta ilea moztu dut. Banoa, 2025, pozik, egia esan.



*BARRE*nek ez du bere gain hartzen Iritzia eta Eskutitzak ataletan adierazitako enantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANa eta telefonoa jarzea. Bidali helbide honetara: [barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus)

-----

### Mila esker

Eskerrik asko, Gaizka eta Dorleta Lazarobaster neba-arrebei eta Pello Agirregabiriari, bere garaian Agustin Lazarobaster *Torrek* eta Antonio Iriondo *Kapainek* sortu zuten traktore eder eta berezia atondu eta Mendaroko herritarren zerbitzura jartzeagatik, bai eta gidari lanak egiteagatik ere.

Arno Guraso Elkarte

### 2025eko Juan Muguerza krosaren esker ona

Idatzi honen bidez, Elgoibarko Nazioarteko Juan Muguerza Krosaren LXXXI. edizioan, Juan Muguerza Nazioarteko krosaren batzordeak eskerrak eman nahi dizkie, nola edo hala, euren laguntza eskaini duten erakunde eta enpresa guztiei. Izan ere, haien eskuzabaltasunari esker, berebiziko arrakasta izan zuen 2025ko urtarrilaren 5ean egin zen krosak.

Era berean, eskerrak eman nahi dizkiogu Elgoibarko herriari; alde batetik, ekitaldi hori antolatzeke orduan emandako laguntzagatik, eta bestetik, gure herrira krosean parte hartzeke asmotan etorri ziren atleta guztiei egindako harrera bero eta adeitsuagatik. Leku guztietatik zoriendu digute eta hau Elgoibar osoarekin partekatu nahi dugu.

Horregatik guztiagatik, Elgoibarko herriaren izena, astebetetz, mundu osoko kirolaren ikuspuntuan egon da, hedabideak Elgoibarren zer gertatzen ari zen adi egon baitira.

Eskerrik asko ere, komunikabideei, ikusleoi eta bereziki laguntzen egon diren hamarnaka boluntarioei; handiak zarete! Hortaz, lanean

jarraituko dugu, datorren urtekoa ere, aurtengoa bezain ona edo hobea izan dadin. Beraz, Mintxetan ikusiko dugu elkar 2026ko urtarrilean, krosaren 82.urteurrena ospatzeko. Mila esker.

Mintxeta Atletismo Taldea

### Urtarrilaren 11n Bilbora!

Bihar, urtarrilak 11, urteroko hitzordu garrantzitsua dugu Bilbon. Zorionez, egoera aldatu eta aldatzen ari da euskal preso, exiliatu eta deportatuentzat. Urruntze politika bukatu da, salbuespen legea amaitzea lortu dugu eta baieztatu dezakegu, gaur egun, hamaika direla lege arrunta jarraituz etxerako bidea hasi duten euskal presoak, etxera bueltatu diren exiliatuak... Eta hori gu denon lan eta borondateari esker izan da. Baina badira, oraindik orain, gaingitu beharreko beste hesi batzuk: salbuespen auzitegia den entzutegi nazionala bera, bizi osorako espetxe zigorra ordezkatzeko sortu zen 07/2003 legea... Horiek ere baztertzea lortu behar dugu, euskal preso, exiliatu eta deportatuek etxerako bidea egin ahal izan dezaten.

Horregatik, urtero moduan bihar Bilbon egotea oso garrantzitsua da. Sufrimendu gehiago ez dugulako nahi, etorkizuna eta elkarbizitzari begira jarri nahi dugulako. Bilbon elkar ikustea espero dugu.

OHARRA: Autobusa 15:30ean irtengo da Txankakuako autobus geltokitik.

SARE Elgoibar

### Eskerrik asko

Elgoibarko Kabalgata Taldeak, beste urte batez, ilusio eta ahalegin handiz prestatu ditu bai Jaiotza Lehiaketa bai Errege Magoen Kabalgata. Badakigu gauza asko ditugula hobetzeko, baina ziur gaude pixkanaka lortuko



I. URTEURRENA

**Mari Carmen Silva Robles**

2024ko urtarrilaren 5ean hil zen 71 urte zituela.

**Maitasunez, beti gure bihotzetan**

Etxeokak





ditugula. Bide batez, jasotako berotasuna eta zorientzeak eskertu nahi ditugu.

Lan hori guztia ez zen posible izango zuon guztion laguntzarik gabe, baina, bereziki, honako hauen laguntzarik gabe: Elgoibarko Udala, Elgojaitza Elkartea, Aramburu Bitxidenda, Alzola Urak, Udal Brigada, Aitor Goiko-IMH, Lerun Autoak, Amagoia Txutxe-Denda, Kopilan, Armueta Harategia, Txankakua, Aizu, Pelegrin, Salento Pizzeria eta Eizaguirre Okindegia.

Boluntarioak: Kabalgataren ibilbidea zaintzen eta plazako Jaiotza antolatzen lagundu zutenak.

Esero dugu ekitaldi honi jarraipena ematea eta zuek guztiak zorientsu egitea. Eskerrik asko

**Elgoibarko Kabalgata Taldea**

### **Esker mila**

Giro bikaina aurten ere urteari agur esateko. Gabon Zaharreko ferian hainbat postu, jendea non nahi, bertako produktu eta animalietan gozatzeko aukera paregabea... Aurten ere, Elgoibar Ikastolak Kalebarren plazan txosna jartzeko aukera izan genuen. Eguraldiak lagundu egin zuen, eta bertan sortu zen giroa aparta izan zen. Oso pozik gaude egindako lanarekin.

Eskerrak emateko garaia da. Eskerrik asko Elgoibarko Udalari, Debemen Landa Garapen Elkarteari eta brigadako langileei, hainbat baliabide eskaintzeagatik. Eskerrik asko Eizagirre okindegiari, Armueta, Patxi eta Ziarda harategiei, Eusko Label-dun saihetsa eskaintzeagatik. Manuel Amarori kamioia eskuragarri jarri eta egunean bertan egindako lanagatik. Deuko Izarrari banaketari edari zein beste material batzuk eskaintzeagatik. LizagaSar-i, bere sagardo eta sagar zukuarengatik; Nekane Altuberi

apaingarriengatik; Jose Ramon Cabrerari, argazkiengatik; Burgoa Somoza arraindegia izotza emateagatik; lanean egon zineten guztiori eta nola ez, mila esker egunean bertan gerturatu zineten guztioi. Girorik ez da zuek gabe-eta.

Aurten ere, 100 pertsona baino gehiago izan garelako antolaketan eta lanean aritu garen ikastolako guraso eta langileak. Esker mila eta bejondeizuela! Bere izaerari jarraituz; herritik, herriarentzat.

**Elgoibar Ikastolako Txosnako lantaldea**

### **OHARRA**

Urtarrilaren 17an San Anton eguna da, jai eguna eta beraz, BARREN astekaria urtarrilaren 16an kaleratuko dugu. BARREN astekarian zerbait kaleratu nahi izanez gero, helarazi urtarrilaren 14a baino lehen, ohiko bideetatik: [barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus), 943 744 112 edo 688 655 658 whatsapp.

**BARREN**




II. URTEURRENA

***Javier Urbieta Uranga***

2023ko urtarrilaren 3an hil zen, 81 urte zituela.

***Betirako gure bihotzean.***

Etxekoak





## Gabonetako zozketako zenbaki sarituak jakinarazi ditu Txankakua

**T**xankakua Merkataritza Elkarteak 3.000 euro zozkatu ditu Eguberrietan elkarteko dendetan erosketak egin dituztenen artean. Otsailaren 7ra arteko epea jarri dute.

Zk.	Saria	Ordezkoa
93.382	500 €	07.297
61.094	500 €	16.595
95.901	500 €	57.108
94.513	100 €	16.618
32.876	100 €	58.769
66.117	100 €	24.225
10.205	100 €	79.967
52.135	100 €	90.439
14.266	100 €	60.150
42.807	100 €	68.078
41.190	100 €	04.618
49.584	100 €	10.955
17.280	100 €	37.914
05.968	100 €	52.823
77.247	100 €	55.266
56.497	100 €	34.080
74.934	100 €	57.315
43.494	100 €	86.246

## Elgoibarko Pentsiodunen Mugimenduak hilaren 13an hasiko ditu mobilizazioak Gabonen ostean



Eguberrietako etenaldiaren ostean datorren astelehenean hasiko dituzte mobilizazioak Elgoibarko Pentsiodunen Mugimenduak eta Duintasunak. 12:00etan egingo dute elkarretaratzea, Kalegoen plazan. Era berean, urtarrilaren 15ean zazpi urte beteko dira mobilizazioetan hasi zirenetik, eta urteurrenaren harira, bailarako manifestazioa egingo dute hilaren 15ean Eibarren. 12:00etan hasiko da, Untzagan, eta amaieran, herri-bazkaria egingo dute.

Bestalde, sinadurak biltzeko kanpaina egingo dutela aurreratu dute, Pentsiodunen Mugimenduak sustatutako Herri Ekimen Legegilearen alde. Ekimen honen helburua gutxieneko pentsioa lanbide arteko gutxieneko soldatarekin parekatzea izango da.

## Indarkeria matxistaren aurka batu dira Elgoibarren eta Mendaron



Barakaldon izan da 2025eko lehen hilketan matxista, eta emakumeen kontrako indarkeriaren adierazpide guztiak gaitzesteko elkarretaratzeak egin zituzten martitzenean Elgoibarren eta Mendaron, Emakume Feministen Asanbladak eta Mendaroko Tratu Onen Aldeko Taldeak deituta. *Eraso matxistarik ez! Aski*



*da* lelopean elkartu ziren Elgoibarko Kalegoen plazan, eta *Indarkeria matxistaren kontra, ardura kolektiboari eutsi zioen* pankartaren atzera batu ziren Mendaron. Indarkeria matxistari erantzun kolektiboa eman behar zaiola eta aliantzak erakitzea beharrezkoa dela nabarmendu zuten.

## Txakurrentzako gunea egokitu du Elgoibarko Udalak Lerunen



Lerungo industrialdeko irteera eta Meliton zubiaren artean dagoen berdegunea egokitu du Elgoibarko Udalak, txakurrentzako. Azken asteotan hesitura ipini dute berdegunearen bueltan, eta 1.300 metro koadroko txakurrentzako parkea sortu dute. Eserlekuak ere ipini dituzte eremu barruan. Udaletik jakinarazi dutenez, 9.180 euroko (BEZ gabe) inbertsioa egin dute, eta astebukaerarako zabalduko dute. Txakur parkea 08:00etatik 22:00etara egongo da irekita, eta arauak azaltzen dituen panel bat ipiniko dute gunearen sarreran.

### Batxilergoko ikasleek egin dute errifaren zozketa

Batxilergoko bigarren mailako ikasleek ikasbidairako dirua lortzeko errifak saldu zituzten, eta abenduaren 28an egin zuten zozketa. 4133 izan zen zenbaki saritua, eta boletoaren jabeak urtarrilaren 29ra arteko epea dauka saria jasotzeko. 688 775 517 zenbakira mezua idatzi behar du saridunak WhatsApp bidez. Epe horren ostean, ordezeko zenbakia sartuko da indarrean: 6830.

### Gabonetako loteriak saria laga zuen abenduaren 22an, Mendaron



Gabonetako loteriaren hirugarren zenbaki sarituak (11.840) 150.000 euro utzi zituen Mendaron, dezimoko 50.000. Morroskillo dendak saldu zituen hiru dezimoak, eta herrikoak bertakoak izan ziren zortedunak, Arantxa Manteca eta haren etxeokak. Zamorako Benavente herrian erosi zituen Arantxa Mantecak hiru dezimo, aita zuenaren ohiturari jarraituz. Arantxaren aita iaz hil zen, eta bazuen ohitura hori: Gabonetako loterian jokatzekoa eta zenbaki bera partekatzekoa etxeokekin, Portugaleteko senide gertuko batzuekin eta Villafafilako bizilagun batekin. Portugaleteko lehengusinak jakinarazi zion sarituak izan zirela.

### Iosu Arraiz, Foru Aldundiko Estrategia zuzendari berria



Gipuzkoako aldezkarri ofizialak argitaratu duenez, orain arte Berrikuntza zuzendaria izan den Iosu Arraiz elgoibartarra izendatu dute Aldundiko Estrategia zuzendari, Sebastian Zurutuza Mujikak kargua utzi eta gero. Arraiz (Elgoibar, 1991) Ingeniaritza Zibilean graduatua da eta Bide eta Ubideen Ingeniaritzan masterra du, Hiri Berrikuntzan Aditu ikastaroaz gain. Elgoibarko Udaleko Hirigintza, Obra eta Zerbitzuetako zinegotzia izan zen 2015 eta 2023. urte bitartean, eta Debarreneko Mankomunitateko lehendakari, 2019tik 2023ra.

## Gabon Zahar Feria, azoka baino gehiago



Urteko azokarik handiena izan ohi da Gabon Zahar Feria Elgoibarren, eta oraingoan ere 80 postu baino gehiago jarri zituzten abenduaren 28ko azokan, denetariakoak, eta jendetza ibili zen herrian. Baina Gabon Zahar Feria azoka hutsa baino gehiago izan ohi da, eta horren adierazgarri da bereziki Urteko Gazta Onenaren txapelketa. 2024an zortzi gaztagilek irabazi zuten txapelketaren bat, eta horien artetik aukeratu behar zuten onena Elgoibarren. Zazpi aurkeztu ziren lehiaketara, eta Kortariko Infernuko gazta (Lekaroz, Nafarroa) izan zen irabazlea. Kalamua Elkarteak eta Elgoibarko Udalak hamaseigarrengoz antolatu dute urteko gazta onena aukeratzeko lehiaketa, eta Kortariko gaztak hirugarrengoz irabazi du, 2018koan eta 2019koan ere gailendu baitzen. 1.500 euroko saria jaso zuen. Elgoibarren irabazita, 2024. urteari amaiera ezin borobilagoa eman zioten Kortariakoek, Bilbo eta Uharteko Arakileko txapelketez gainera Euskal Herriko Txapelketako lehen sariak irabazi zituztelako.

### Barazkietan Txillarre irabazle

Barazki Postu Onenaren Saria herrian bertan gelditu zen, Txillarre baserriko Argiñe Rubiok jaso baitzuen lehen saria (600 euro). Pozik jaso zuen saria eta aitortu zuen urte erdia pasatzen dutela Gabon Zahar azokari begira, ahalik eta produktu onenak ekoizteko eta saltzeko ahaleginean.

Ispasterko Iparragirre baserriko Igor Letek jaso zuen bigarren saria (500 euro) eta Markina-Xemeingo Xemein-Gain baserriko Alejandro Arrietak, hirugarren saria (400 euro).

Fruta postuetan, Hernaniko Zabaloenea baserriko Maddi Iradi izan zen irabazlea, eta 600 euroko saria jaso zuen. Iaz moduan, Jose Antonio Elosegik (Oñatibi Txiki, Gabiria) jaso zuen bigarren saria eta Urtza Sarrionandiak (Jauribarri Goikoa, Igorre) hirugarrengoa.

Era berean, Ispasterko Igor Letek feriako Saltoki Onenaren Saria (600 euro) eskuratu zuen, eta Benekotasuna eta Berrikuntza Saria, berriz, Iker Villasanari (Bortzatxus, Arrieta) eman zioten. Azkenik, mendiak ondoen zaintzen dituzten baserriaren saria Zulueta Behekoa baserriko Jose Manuel Almortza Etxenagusiak jaso zuen.



*Kortariko gaztandegikoa, txapelarekin.*





*Ekzerrean, Argiñe Rubio eta etxeokak Maialen Gurrutxaga alkatearekin eta Jaurilaritzako Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantza sailburu Amaia Barredorekin, eta eskuinean, Hernaniko Zabaloeneako Maddi Iradi, txapela eta garaikurrarekin.*

### **Javier Arrizabalaga, Agustín Irusta eta Pedro Erkiaga omendu zituzten**

Gabon Zahar Azoka berreskuratu eta bizirik mantentzeko egin duten lanagatik aitortza jaso zuten Javier Arrizabalagak, Agustín Irustak eta Pedro Erkiagak.

Iazko ekainean hil zen Javier Arrizabalaga Ansola Belarreta izan zen omenduetako bat. Azoka berreskuratzeko egindako lanaren aitortza egin zioten. Demokrazia garaiko lehenengo legealdiko zinegotzia izan zen, 1979tik eta 1983ra bitartean. Arrizabalaga Aiastiako auzo alkatea ere izan zen makina bat urtean eta Kalamua elkartearen sortzaile eta bazkidea ere bai. Gabon Zahar Azokan urte mordoxkan aritu zen epaile lanetan barazki zein fruten lehiaketetan, eta horrez gain, Euskal Herrian egiten ziren azoka desberdinetara joaten zen ekoizleak ezagutzeko eta pertsonalki azokara etortzeko gonbita egiteko. Bera gabe feria hau ez litzatekeela berdina izango azpimarratu zuten udaletxeko pleno aretoan eginiko ekitaldian.

Agustín Irusta izan zen bigarren omendua. Elgoibarko Udalean zinegotzi izan zenetik (1991-1994), baserri munduarekin zerikusia duten herriko ekitaldi guztietan lagundu duela eta laguntzen jarraitzen duela esan zuten, bai eta Belarretak hasitako lanari jarraipena eman diola ere. Azken hamasei urteetan Kalamua elkarteak antolatzen



*Agustín Irusta, Pedro Erkiaga eta Javier Arrizabalagaren alargun Maria Pilar Aranzabal, Maialen Gurrutxaga alkatearekin.*

dituen San Bartolomeetako eta Gabon Zahar Azokako gazta lehiaketetako antolakuntzan buru-belarri aritu izana ere eskertu zioten, bai eta atzetik datozenei laguntzen egiten duen ahalegina ere.

Hirugarren omendua Pedro Erkiaga albaitaria izan zen. Foru Aldundian egingo du lan aurrerantzean eta Debabarrena eskualdeko baserrietan albaitari moduan egin duen lanari aitortza egin nahi izan zion Elgoibako Udalak. "Baserritarrak eskertuta daude Pedorekin, izugarri estimatzen dute bere lana, eta horregatik omendu nahi dugu. Ganaduak ondo zaindu ditu eta asko salbatu ere bai, eta horrek baserritarrentzat benetako balioa du. Bere dedikazioa eta konpromisoa ezinbestekoak izan dira baserri munduarentzat", adierazi zuten udal arduradunek.



# EGUBERRIAK BEGI-KOLPE BATEAN

Asier Orbea / Ainhoa Andonegi  
Ainara Argoitia

Ez da aspertzeko astirik izan Gabonetan. Orrialde hauetan, Elgoibarren eta Mendaron urteroko zita bihurtu diren ekintzen laburpen bat osatu dugu argazkitan. Mendaroko Txirrindulari Elkarteak neguko oporraldian antolatu ohi duen haur krosa, Elgoibarko Izarraren eguberrietako bertso-jaialdia, Olentzero eta Mari Domingiri bi herrietan egindako ongietorriak, Elgoibarko Izarraren tonbola, Biraka dantza taldearen abenduaren 26ko dantza emanaldi jendetsua, San Silbestre lasterketak, eta errege magoen Elgoibarko eta Mendaroko desfileak. Argazki gehiago eta bideoak: [barren.eus](http://barren.eus)



June eta Nora Alvarez Fernandez, Elgoibarko Izarraren tonbolako zozketako saridunak sariarekin.









*Elgoibarko San Silbestre lasterketako podiuma. Mikel Agirrebeña eta Patri Amondarain izan ziren azkarrenak.*











*Olentzero eta Mari Domingiren traktorea eraiki zuten Antonio Iriondori eta Agustin Lazaroasterri egindako aitortza. Argazkian, Lazarobasterren senideak.*





# CHEBET ETA AREGAWI IZAN DIRA AZKARRENAK MUGERTZA KROSEAN, BIGARREN URTEZ JARRAIAN

✍️ Asier Orbea / 📷 Joserra Cabrera



**M**intxeta Atletismo Taldekoek nazioartean puntaren puntan dabiltzan kros lasterkariak ekarri dituzte aurten ere Elgoibarrera. Gainera, emakumeen zein gizonen lasterketa nagusietako iazko irabazleak itzultzea lortu dute; lorpen handia bere horretan, baina are handiagoa kontuan hartuz gero, iaz ere bazuten izar estatusa baino handiagoarekin itzuli direla Beatrice Chebet (Kenya, 2000) eta Berihu Aregawi (Etiopia, 2001). Lehendik distiratsua zen ibilbidea garaipen garrantzitsuz jantzi zuten 2024an biek ala biek. Munduko Kros Txapelketa eta Parisko Olinpiar Jokoetan urrezko bi domina irabazita itzuli da Chebet kenyarra, eta Mintxetako zirkuituan ere erakutsi du 5.000 eta 10.000 metroko lasterketetan eta krosetan parekorik ez duela egun. Erraz irabazi zuen lasterketa. Emozio handiagoa eduki zuen bigarren posturako borrokak, esprintean erabaki baitzuten Melknat Wudu etiopiarrek eta Francine Niyomukunzi burundiarrek. Wudurentzat izan zen bigarren postua.

Senior gizonetzkoen lasterketa irabazteko faborito nagusia zen Berihu Aregawi etiopiarra, eta pronostikoak bete zituen, bigarren urtez jarraian Mugertza krosa irabazita. Aurten lau kros irabazitakoa (Atapuerca, Soria eta Alcobendas) den Rodrigue Kwizerak bakarrik eutsi zion Aregawiren

erritmoari. Aregawi txapeldunorde izan zen iaz Serbian jokaturako Munduko Kros Txapelketa eta Parisko Olinpiar Jokoetan (2017ko Mugertza krosako irabazle Joshua Cheptegeik irabazi zuen urrea), eta Diamond League proba irabazi zuen.

## Erreleboa antolakuntza taldean

Egotoki elkarteak antolatu zituen Mugertza krosaren lehen 58 edizioak, eta hortik aurrerakoak, azken 22 ekitaldiak, Mintxeta Atletismo Taldeak antolatu ditu. 81. edizioa izan zen domekakoa. Mintxeta taldean antolakuntzan aritu diren lantaldeko zenbait kide errelebo eskean aritu dira azken urteetan, eta iritsi zaizkie behar eta eskatzen zituzten kimu berriak taldera. Belaunaldi-errelebo modukoa egin dute; beteranoenek laga dute taldea eta kide gazteak batu zaizkie. 2002tik Mugertza krosa antolatzeaz arduratu den lantaldea laga dutenei omenaldia egin zieten Mintxetan. Jose Luis Diez, Gerardo De Pedro, Jose Mari Salaberria, Cirilo Sanchez eta Antton Azpiazuri, hain justu ere. Honakoek osatuko dute lantalde berria: Zigor Diez, Anton Arrillaga, Iñaki Gil; Maria Hernandez, Jon Basurto, Jon Angulo, Jesus Viña, Nerea Solozabal, Leire Astigarraga, Antton Arizmendi eta Lander Azpiazu. Iaz hil ziren Carmen Valero eta Mariano Haro atletak omentzeko ekitaldia ere egin zuten.

# 16 MUGERTZA KROSA ARGAZKITAN


Argazki guztiak: [barren.eus](http://barren.eus)

















## Etxegiña koruaren mendeurrenari eskainiko diote aurtengo filatelia-erakusketa

Urtarrilaren 17tik 25era egingo dute filatelia-erakusketa Altxolatarren Dorretxea filatelia elkarteok Elgoibarren, Kultur Etxean. 11:00etan zabalduko dute erakusketa hilaren 17an, eta sari banaketa urtarrilaren 25ean egingo dute, 13:00etan, Kultur Etxeko Sotoan, erakusketariak eta Udal ordezkariak bertan direla. Aurtun, Etxegina koruaren mendeurrenari eskaini diote erakusketa, eta gutxienez 75 erakusmahai izango direla aurreratu dute antolatzaileek. Ordutegia ondorengoa izango da: astebarruan, 18:30etik 20:30era, eta jaiegunetan, 12:00etatik 14:00etara goizez, eta 18:30etik 20:30era, arratsaldez. Ohi



legez, aurtengo omenduari eskainitako seilu pertsonalizatua ere sortuko dute. Postaren etxea edo bulegoa Kultur Etxean bertan zabalduko dute urtarrilaren 18an eta hiru orduz egongo da zabalik, 11:00etatik 14:00etara.

### 'Elgoibar' izango da aurtengo argazki lehiaketarako gaia

Ongarrirekin batera antolatu ohi duen argazki lehiaketan parte hartzeko epea ireki du Elgoibarko Udalak. Lehiaketa horren bidez, 2026ko udal-egutegia irudikatuko duten irudiak aukeratu dituzte. *Elgoibar* izango da aurtengo gaia, eta herriko leku, txoko, ekimen, jai edo gizarte bizitzaren eszenak irudikatzen dituzten argazkiak bidali beharko dituzte parte-hartzaileek.

Irudiak 2024ko urritik 2025eko urriaren 8ra bitartean hartu behar dira Elgoibarren, eta lehiaketaren oinarrietan ezarritako baldintza teknikoak bete beharko dituzte. 16 urtetik

gorakoek parte hartu ahal izango dute, eta gehienez sei argazki aurkeztu ahal izango ditu bakoitzak, baina hiru bakarrik saritu ahal izango dira pertsonako. Argazkiak posta elektronikoz bidali beharko dira [euskara@elgoibar.eus](mailto:euskara@elgoibar.eus) helbidera 2025eko urriaren 8a baino lehen, egilearen datuak eta irudi bakoitzaren kokapena eta data adierazita. Epaimahaiak 13 argazki irabazle aukeratu ditu. Saritutako irudi bakoitzak 80 euroko bonua jasoko du, Txankakua elkarteko dendetan trukatzeko. Aukeraturako argazkiak 2026ko egutegian argitaratu dituzte.

### 'Goazen'-en denboraldi berriko kontzertuak Elgoibarren, hilaren 24an

*Goazen* telesailekoek bi kontzertu emango dituzte Elgoibarren urtarrilaren 24an, barikuan: bata, 17:00etan, eta bestea, 19:00etan. Herriko Antzokian izango dira bi kontzertuak eta sarrerak salgai daude [herrikoantzokia.eus](http://herrikoantzokia.eus)

webgunean. Nerea Elizalde, Mikele Arizkorreta, Xabier Elizalde, Kimetz Etxabe, Ander Ayerza, Garazi Urkola, Irati Marin, Adriana Sanchez, eta Julen Taboada aktoreek parte hartuko dute.

## 'Miñan' antzezlan taularatuko dute urtarrilaren 17an Elgoibarko Herriko Antzokian



Ibrahim Balderen eta Amets Arzallusen *Miñan* liburuan (Susa, 2019) oinarritutako antzezlan emango du Artedramak Elgoibarren urtarrilaren 17an, Herriko Antzokian, 19:00etan. Ander Lipusek, Manex Fuchsek eta Philippe Ducouk zuzendutako obra da eta antzerkirako testuaren egokitzapena Saran euskaldundu den Timberlake Wertebaker dramaturgo ingelesarena da. Iazko

urrian estreinatuta zuten Luhuson eta geroztik hamaika emanaldi egin dituzte.

Sarrerak salgai daude dagoeneko [herrikoantzokia.eus](http://herrikoantzokia.eus) webgunean, baina Herriko Antzokiko lehiatilan ere eskuratu daitezke bihar, zapatua, 18:15etik 20:45era bitartean, bai eta egunean bertan ere aurrez denak salduko ez balituzte.

### 60ko hamarkadako Lurgabe eta Bereluma musika taldeen disko edo argazki bila ari dira

60ko hamarkadan Elgoibarren sortutako Lurgabe eta Bereluma musika taldeen disko edo argazki bila ari da irakurle bat, eta herritarren laguntza eskatu du. Lurgabe taldea 1968-1969 inguruan ibili zen kantuan, hainbat txapelketa eta jaialditan. EP bat grabatu zuten, lau kanturekin, CINSA disketxean. Elgoibarko Regina Arrieta, Begoña Badiola eta Maria Luisa Zubiaurrek osatzen zuten taldea, Angela Zabaletaren gidaritzapean eta diskoan Jose Zubiaurrek lagundu zien gitarrarekin. Juan San Martin eta Jose Mari Iriondoren

laguntza izan zuten hainbat kanturen hitzak moldatzeko.

Lurgaberen aurreko taldea izan zuten Bereluma lau lagunek: gero Lurgabe sortu zuten Begoñak, Reginak eta Maria Luisak eta Marisa Agarrek (lau lagunaren izenen lehenengo bi hizkiak batuta sortu zuten taldearen izena). Elgoibarko Izarrak Odeioan antolatuta ohi zuten jaialdian hasi ziren kantuan. Euskal Herriko kantuek abesten zituzten lehenengo eta orduko *Eurovisión* lehiaketa irabazi zuten kanta ere interpretatu zuten, Juan San Martinek euskaratuta.

### Elgoibarko Udalak eta DEBABEk hitzarmena sinatu dute aurtengorako

Elgoibarko Udalean euskararen erabilera normalizatzeko hitzarmena sinatu dute Udalak eta DEBABA Udal Euskaltegien Mankomunitateak. Aitor Iriondo Euskara zinegotziak eta Susana Gurrutxaga Udal Euskaltegien Mankomunitateko zuzendariak sinatu dute hitzarmena. Udaletik gogora ekarri dutenez, 2023an Elgoibarko Udalean Euskararen Erabilera Normalizatzeko VII. Plana onartu zuten lau urterako. Behar bezala ezartzeko, jarraipena egiteko eta ebaluatzeko, Udalak egokitzat jo zuten Udal Euskaltegien Mankomunitatearen zerbitzua jasotzea. 2025ean, Udalak Euskararen Erabilera Normalizatzeko VII. Planaren inplementazioarekin



jarraituko duela jakinarazi du eta lankidetzaz horri esker, Elgoibarko Udalaren Euskara Saila indartuko dutela ere zehaztu dute.



## Inmigrazio eta kulturartekotasunari begira ditugun erronkez mintzatuko dira Elgoibarren

Jatorri ezberdinetatik etortzen ari dira eta jarraituko dute etortzen euskaraz ez dakiten herritarrak, eta gai hori izango dute hizpide Elgoibarko Izarrak eta Elgoibarko Udalak urtarrilaren 21erako antolatu duten *Gu berri bat sortu beharra* izenburuko elkarriketa formatoko hitzaldian (Aita Agirre kulturgunean, 18:30ean). *Elgoibar jatorri askotariko herritarren bizipen linguistikoak eta euskararekiko dituzten pertzepzioak* ikerlanaren egile Ekhine Eizagirre eta Zarauzko Udaleko Inmigrazio eta Kultura Aniztasunerako teknikaria den Julen Aranguren gonbidatuko dituzte, eta inmigrazio eta kulturartekotasunari begira ditugun erronka eta zailtasun nagusiez arituko dira, batek galdetu eta besteak erantzunez. Eta orain zer? Nola jarraitu gure herria(k) euskalduntzen? Non kokatzen da euskara bizilagun berrien integrazio bidean? Zer osagai izan beharko litzuzke Gutasun berriak? eta Eizagirreren beste zenbait galdereri erantzungo die Aranguren soziologoak.



### Neguko oporraldiko ekintzetan izan den parte-hartze datuei buruzko balorazio oso ona egin du Udalak



Elgoibarko Udalak balorazio oso positiboa egin du neguko oporraldian antolatutako aisialdiko ekintzez. Ludotekak antolatutako jarduera guztietan 340 izen-emate zenbatu dituzte, eta 271 Gaztelekuak antolatutakoetan. Zehaztu dutenez, umeez eta nerabeek eurek eginiko proposamenak kontuan hartuta antolatu dituzte ekintza asko. Gaztelekuko erabiltzaileek Salting-ean (Iruñean), bingoan, lastertag-ean edota ihes-gelan parte hartzeko aukera eduki dute, besteak beste. Ludotekakoek, berriz, sukaldaritza jolasak, Eureka! Zientzia Museora irteera, Bilboko Gabonetako Parkera zein Jump Yardera irteerak eta gastronomiarekin zerikusia duten zenbait saio egin dituzte.

### Elgoibarko Udal Gaztelekuak irekiera ordutegia aurreratu du

Elgoibarko Udal Gaztelekuak irekiera ordutegia aurreratu du, nerabeen eskaerak aintzat hartuta. Ordutegi berria honako hau izango da aurrerantzean: eguazten, eguen eta domeketan: 16:30etik 19:30era. Bariku eta zapatuetan: 16:30etik 20:30era.

### 96ko Kilometroei buruzko erakusketa osatu dute Aita Agirre kultur kafean



Elgoibarren 1996an antolatu zuten Gipuzkoako ikastolen aldeko jaiak gogora ekartzeko erakusketa antolatu du Elgoibar Ikastolako guraso talde batek Aita Agirre Kultur Kafean eta urtarrilaren 31 arte egongo da ikusgai. Argazki eta bideo proiektio horretan, jaiaren ilusioa, elkarlana eta komunitatearen indarra erakutsi asmo dituzte.

## Iker Izagirre Gipuzkoako txapeldun eskuz banakakoan

**B**este titulu bat irabaziz hasi du urtea Iker Izagirre Rodriguez pilotari elgoibartarrak. Donostiako Atano III. pilotalekuan jokatu zituzten urtarrilaren 3an Ezker Hormako Kluben Arteko Gipuzkoako Txapelketako eskuz banakako finalak, kadete, jubenil eta nagusien mailakoak. Jubenil kategoriako Lehen Mailako finalean Iker Izagirre (Lapke, Lazkao) eta Manex Olaizek (Oiarpe, Oiartzun) jokatu zuten elkarren aurka, eta Izagirre gailendu zen 22-9ko emaitzarekin. Partida erdialdera arte parekatua izan zen finala, baina bigarren zatian aurkariari gain hartu zion Lazkaoko Lapke taldean diharduen pilotari elgoibartarrak. Sakean eta sake-errematean oinarritu zuen bere jokoa Izagirrek eta tanto mordoxka egin zituen era horretan. Izagirre, txapeldunarekin erdian.



### Manex Iureta pilotaria, txapeldunorde

### San Anton Pilota Txapelketako bigarren finalerdiak, gaur



Errendimenduko Gipuzkoako Txapelketako eskuz banakako finalak jokatu zituzten abenduaren 29an Arrasateko Uarkape pilotalekuan, eta 1. mailako alebinetan, mendebaldekoetan, Lagunak Pilota Eskolako kide Manex Iureta Arakistain ailegatu zen finalera (argazkian eskuinean). Ilunpe taldeko Janitz Goenaga izan zuen aurkari finalean eta hark irabazi zuen, 8-4 eta 8-2ko emaitzarekin.

Azken orduko zenbait aldaketarekin hasi zuten urtarrilaren 3an San Anton Pilota Txapelketaren 32. edizioa. Batetik, azken orduko arazoengatik, iragarrita zituzten finalerdiak bertan behera laga eta Emakumeen Lau t'erdiko txapelketako hirugarren edizioaren finala bakarrik jokatuko dela azaldu dute Lagunak Pilota Eskolakoek. Iaz txapeldunorde izan zen Goiuri Zabaletak eta Amaia Aldaik jokatuko dute finala San Anton Egunean, urtarrilaren 17an, 19:00etatik aurrera.

Gaur, hilak 10, bigarren finalerdiak jokatuko dituzte, 19:00etan hasita. Iker Izagirre elgoibartarrak jokatuko du promesa mailako kanporaketa, Sotilekin bikotea osatuz. Ibarluzea eta Santesteban izango dituzte aurkari. Nagusien neurketan Irribarriak eta Lozak Apezetxearen eta Bernaolaren aurka jokatuko dute. Lehen finalerdietan, Ramirezek eta Leonetek osatutako bikotea sailkatu zen promesa mailako finalerako, Ibarrari eta Elorzi 22-15 irabazita. Nagusien mailan Rekaldek eta Lozak 22-8 irabazi zioten Apaolazari eta Albeniziri.



## Belamendiren idiak nagusi Kintopeko Idien Euskadiko Txapelketan



Urteko hiru idi-parerik onenak lehiatu ziren abenduaren 30ean Sigmako probalekuan jokatu zuten Kintopeko Idien Euskadiko Txapelketaren finalean. Belamendi errezildarraren, Olalde urrestildarraren eta Billabaso maruritarraren idi-pareak lehiatu ziren, hain zuzen ere. Partaideek Murgil harria, 1.640 kiloko, mugitu zuten plazan.

Belamendiren idiek lortu zuten markarik onena, 49 plaza osatuta. Olalde sailkatu zen bigarren, eta Billabaso hirugarren, 40 plaza eta 4,35 metrorekin. Zapatu honetan, Sigma Probalekua Herri Kirol Elkarteak antolatuta, Urteberriko Idi Kintopekoen Saria jokatu dute Sigmako probalekuan, 21:00etatik aurrera. 🏆 Mikel Askasibar

### C.D. Elgoibarren Gabonetako otarren zozketako irabazleak



Urtero moduan, era guztietako produktuz osatutako bi otarre zozkatu ditu Club Deportivo Elgoibar futbol taldeak Eguberrietan. Gabon Zahar Feria egunean egin zuten zozketa eta Ramon Babarro irabazi zuen lehen saria (29.039 zenbakia) eta Mikel Arosak bigarrena (1.640 zenbakia). Urte hasieran banatu zizkieten sariak. Furgoneta eta guzti azaldu zen saria jasotzera Babarro, bizikleta bat, telebista handi bat eta jaki mordoia eraman behar baitzuten.

### Leire Vegak irabazi du emakumezkoen xake txapelketa



Berko xake txapelketetan gertatu zen moduan, Emakumezkoen Xake Txapelketaren laugarren edizioan ere erakustaldia eman zuten Santurtzi taldeko xakelariak, podiuma osatu baitzuten. Leire Vega getxoztarra gailendu zen, Maddi Zubizarreta sailkatu zen bigarren postuan eta Garazi Lamborena hirugarrengoa. Abenduaren 22an jokatu zuten Gure Bide Xake Taldeak antolatutako txapelketa Aita Agirre Kulturgunean, eta 11 xakelari aritu ziren lehian.

## Ansorregik eta Zelai III.ak irabazi dute Urrezko Aizkolarien Kopa

Urtezahar egunez, abenduaren 31n, jokatu zuten Urrezko Aizkolarien Kopako finala, Asteasun. Binakako emakumezkoen txapelketan, Uxue Ansorregi mendaroarrak eta Karmele Gisasola Zelai III.a mallabiarrak osatutako bikotea izan zen irabazlea. 45 hazbeteko lau enborrak 10 minutu eta 13 segunduan moztu zituzten; Nerea Sorondo (Bera) eta Irati Astondo (Zeanuri) aurkariek baino minutu bat eta 37 segundu arinago. Gizonezkoetan, Julen Alberdi *Txikia IV.a* azkoitiarrak jantzi zuen txapela, Mikel Larrañagari eta Jokin Urretabizkaia *Basozabali* aurrea hartuta. Hodei Ezpeleta mendaroarra



finalera sailkatzeko atarian gelditu zen, Basozabalek irabazi zuen kanporaketan.

### Martitzenean zabalduko dute Kilimon Trail lasterketan izena emateko epea

Euskal Herriko Kopako lasterketa izango da aurten Mendaroko Kilimon Trail mendi lasterketa, eta urtarrilaren 14an zabalduko dute izena emateko epea, arratsaldeko bostetan. Mendaroko Txirrindulari Elkarteak eta Lizarpe Mendi Klubak antolatzen dute Kilimon Trail lasterketa, Mendaroko Udalaren laguntzarekin, eta aurtengoa hamahirugarren ekitaldia izango da. Interesdunek [www.kronoak.com](http://www.kronoak.com) helbidean sartuta eman beharko dute izena, urtarrilaren



14tik aurrera. Urtero bezala, bi lasterketa izango dira: luzea, 24 kilometrokoa, eta motza, 11 kilometrokoa. Apirilaren 5ean jokatuko dira bi lasterketak.





**Mikel Leon**  
[inmomikel@gmail.com](mailto:inmomikel@gmail.com)

**747 459 343**  
 San Ignazio kalea 1,  
 20870 Elgoibar

**Mikel INMOBILIARIA**  [@mikel\\_inmobiliaria](https://www.instagram.com/mikel_inmobiliaria)

**ETXEA SALGAI (igogailuarekin) San Frantzisko kalean. 4 LOGELA. 120m<sup>2</sup>**





**LANA**

**Eskaerak**

Arratsaldeetan edo asteburuetan lan egiteko prest nago. Adinekoak edo umeak zainduko nituzke. Garbiketa lanetan esperientziaduna naiz. Titulu soziosanitarioa daukat. **661 063 891**

Adinekoak zaintzeko prest nago, etxeko langile moduan. Asteburuetan ere lan egiteko prest. Esperientzia handia daukat eta erreferentzia ezin hobeak eskaini ditzaket. Berehala hasteko prest. **632 711 473**

Adinekoak zaintzeko prest nago, etxeko langile moduan edo orduka. Titulu soziosanitarioa daukat. **631 664 700**

Adinekoak zaintzeko prest nago, etxeko langile moduan. 17 urteko esperientzia daukat, eta titulu soziosanitarioa ere bai. **624 131 378**

Etxeko langile moduan adinekoak zaintzeko prest nago. Etxean garbiketa lanak eta sukaldari lanak ere egingo nituzke. Esperientzia eta titulu soziosanitarioa daukat. **632 355 103**

Adinekoak zaintzeko prest nago, etxeko langile moduan, orduka edo asteburuetan. **623 348 015**

**BESTELAKOAK**

Gabonetan semearen ahoko aparatoa galdu genuen kalean. Bi pieza dira, horia eta urdina. Balio handia dauka, eta eskertuko genuke norbaitek aurkitu badu abisatzea. **653 702 750**

CD Elgoibarko sudadera galdu dugu. Norbaitek aurkitu badu, deitu dezala, mesedez. **667 528 550**



*Trini Urkizu Ugartemendia*

2025eko urtarrilaren 1ean hil zen, 93 urte zituela. Familiak bihotzez eskertzen du jasotako babesa.

***Ama, baso bete uretan sartuko zaitugu  
sustrairik gabeko loreak sartzan diren bezala,  
eta ura aldatuko dizugu egunero,  
loretan iraun dezazun.***

Etxekoak



Consejo Vasco de Colegios de Administradores de Finanzas  
Euzkoako Finantza Administrazioaren Erakunde Komunitarioa



**ROSA Mª  
PINTADO**

Etxaldean Administrazioarako-Gratu ikasketen arduraduna Alcalá de Henaresko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749

**660 969 679**

**rosapf@telefonica.net**


**Bizilagun batek bizilagun guztiena den elementuren batean kalteak eragin baditu, bere esku al dago konponketa ordaintzea, nahiz eta berak mantentze-lanak egoki eginda izan bere jabegoan?**

Bizilagunak bere jabegoan mantentze-lan egokia egin arren, baliteke horrek kalteak eragitea elementu komunetan edo beste bizilagunengan. Beraz, kaltearen zergatia ezustekoa edo ezinbestean gertatu beharrekoa izan ez bada behintzat, bizilagunak konpondu beharko ditu bere elementuek gainontzekoetan eragindako kalteak. Bizilagunak bere jabegoa zaintzeko dagokion ardura hartu badu ere, kalteen konponketa bere gain hartu behar izatearen arrazoiak bere jabegoaren elementuren batek kaltetu duela hirugarren bat, nahiz eta nahigabe izan. Legea irakurrita, badirudi etxebizitzaren edo lokalaren jabea hirugarren bati eragindako kalteen erantzule izango dela, hutsegitea jabearenak soilik diren elementuen mantenuan izan bada. Baina ez da zehazki horrela. Izan ere, kasu hortan, ezin da jabea behartu bere jabegoa konpontzerakoan sortu diren kalteak ordaintzera. Beti ere, bere mantenu-lanak egin dituzte behar besteko arreta jarri duela egiaztatzen badu.

**Aholkua: Ezinbestekoa izango da kasu bakoitzeko egoera aztertzea, izan ere, kasuistika askotarikoa izan daiteke eta ez da erraza kasu guztiei erantzun bateratua ematea**



**AHOLKULARI KOLABORATZAILEA**  
San Bartolome, 2

Argazkiak **urtarrilaren 14rako**, eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira **BARRENEKO** bulegora, [barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus) e-postara edo  **688 655 658** bidalita.



Zorionak, **Lur**, urtarrilaren 8an 8 urte bete zenituelako. Besarkada handi bat, familiakoen partez.



Zorionak, **Adolfo!** Ondo ospatu 70 urteak!



Zorionak, **Libe!** 2 urtetxo dagoeneko! Oso ondo pasa genuen zure egunean! Eta kandlei zenbat putz egin! Muxu handi bat etxeko guztion partez!



Zorionak, **Lucia!** Gure etxeko printzesak 10 urte! Segi orain arte bezain alai eta jator. Asko maite zaitugu. Muxu handi bat, etxekoen partez.



Zorionak, **Intza!** Astelehenian 7 belarri tirakada eta patxo haundi bat emango dizkizugu. Alai-alai jarraitu! Familixakuen partez.




Zorionak, **Ander**, zure 10. urtebetetzean. Jarraitu zaren bezalakoa izaten. Etxekoak.



Zorionak, **Udane!** 8 urte dagoeneko! Ondo-ondo ospatu! Muxu handi bat familiako guztion partez.



Atzoko partez, zorionak, **Ihintza!** Jarraitu beti bezain alai eta jator. Txokolatada noiz da? Muxu potolo bat Apraizko familia guztiaren, eta bereziki Alaiaren partez.



**Alex**, asteartean 3 urte, txapeldun! Zorionak etxeko guztien partez! Patxo handi bat.



Zorionak, maitea! Etxekook asko maixe zaitugu.



**ASESORIA  
GOAR**

**KONTABILITATEA  
AHOLKULARITZA FISKALA  
ASESORIA LABORALA**

San Bartolome, 2 behea - Elgoibar    Tel: 943 742 674 / 943 740 234  
[asesoria@asesoriagoar.com](mailto:asesoria@asesoriagoar.com)    Faxa: 943 742 129



**barren**

Goldetu prezioak eta gustura erantzunago dizugu.

**Jarri ezazu zure publizitatea  
BARREN astekarian edo  
www.barren.eus webgunean**

**943 743 704  
688 769 657**

[barren.publi@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren.publi@elgoibarkoizarra.eus)  
Aita Agirre Kulturunea, 3. 3. ezk. - 20870 ELGOIBAR

**EXPRESS ESKAINTZAK!**

**LG F4DR6009A1W  
LEHORGAILU-GARBIGAILUA**

A  
T  
G **A**

GARBIGAILUA

A  
T  
G **D**

LEHORGAILUA



- Garbiketa 9 kg
- Lehorketa 6 kg
- 1400 b/min
- Lurrun-programa
- TurboWash Teknologia

639 €

**MILARBIRE**

Ubitarte, 11 - 943 741 487 - [bire@milar.es](mailto:bire@milar.es)  
Dendako prezioak. Produktuak agortu arte.



## 10 BARIKUA

**16:30** Odol ateratzeak, Elgoibarren. Txanda hartzeko: 623 328 408 whatsapp zenbakian edo [gotatanta.eus](http://gotatanta.eus) webgunean.

## 11 ZAPATUA

**21:00** Urteberriko idi kintopekoen saria. Sigmako probalekuan.

## 13 ASTELEHENA

**12:00** Elkarretaratzea. Elgoibarko Pentsiodunen Mugimenduak deituta, Kalegoen plazan.

## 14 MARTITZENA

**16:00** Zaintzako etxek etxeko lanei buruzko aholkularitza zerbitzua Merlin Medinarekin. Lilan izango da, doan. Bakarkako saioak. Txanda hartzeko: 688 640 983 edo [elgoibarkozaintza@gmail.com](mailto:elgoibarkozaintza@gmail.com).

## SAN ANTON 2025

### 17 ZAPATUA

**11:00** Meza nagusia, San Bartolome parrokian.

### 11:30 - 14:00 eta 16:30-19:30

Umeentzako parkea, Kalegoen plazan eta Aita Agirren. Euria bada, Sigman.

**12:00** Zigilu erakusketaren inaugurazioa.

Santa Eskeko Etxegina taldearen urteurrenari eskainiko diote aurten. Hilaren 25era arte egongo da ikusgai, Kultur Etxean, lanegutean 18:30etik 20:30era eta jaiegutetan 12:00etatik 14:00etara eta 18:30etik 20:30era.

**17:30** Erraldoi, buruhandi eta zezenzikleten kalejira, herriko dultzaineroekin.

**19:00** Antzerkia: 'Miñan'. Herriko Antzokian.

**19:00** San Anton pilota txapelketako finala. Ikastolako frontoian.

### 25 ZAPATUA

**11:00** Filatelia Elkarteko Euskal Federazioaren urteko lehen batzarra. Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

**13:00** Filatelia erakusketaren itxiera ekitaldia eta parte-hartzaileei omenaldia. Kultur Etxeko sotoan.

## Zinea Herriko Antzokian



### 'Emilia Pérez'

10 barikua: 19:00

11 zapatua: 19:00 / 22:15

12 domeka: 19:00

13 astelehena: 21:00

### 'Harold y el lápiz mágico'

12 domeka: 16:30

### 'Cuando cae el otoño'

(Ongarri zinekluba)

15 eguaztena: 21:00

### 2025ko botika ordutegiak:

09:00-13:00 / 16:00-20:00

GUARDIAK: Egunez: 09:00-22:00

Larunbatak: 09:00-14:00 (■)

### URTARRILA

10 BARIKUA

11 ZAPATUA

12 DOMEKA

13 ASTELEHENA

14 MARTITZENA

15 EGUAZTENA

16 EGUENA

17 BARIKUA

### Egunez

■ Oruesagasti

■ Barrenetxea

■ Barrenetxea

■ Soto

■ Garitaonandia

■ Arriola

■ Fernandez

■ Oruesagasti

2025 urte guztian, gaeuz: Lekunberri Alberdi,  
Mikel Isasi, 31 (Eibar) - 943 204 230

■ Fernandez:  
Herriko  
Enparantza, 4  
Garagartza  
(Mendaro)  
943 756 142

■ Soto  
Rekalde, 1  
(Soraluze)  
943 751 638

■ Oruesagasti:  
Kalebarren, 9  
(Soraluze)  
943 751 384



II. URTEURRENA

**Natividad  
Pradera Malaxecheverria**

2023ko urtarrilaren 5ean hil zen,  
96 urte zituela.

**Beti gure bihotzetan,  
maite zaituztegu.**

Etxekoak



XX. URTEURRENA

**Julio  
Anton Muñoz**

2005eko martxoaren 21ean hil zen,  
79 urte zituela.




IV. URTEURRENA

**Sabin Osoro Unzueta**

2021eko urtarrilaren 8an hil zen, 98 urte zituela.

**Egunak joan dira  
eta badoaz,  
baina zu ez zara gugandik askorik aldendu.  
Gure gogoan zara, Sabin**

Etxekoak




VIII. URTEURRENA

**Pedro Jose Ansola Garate**

2017ko urtarrilaren 5ean hil zen.

**Urteak, egunak eta uneak  
igaro diren heinean  
bizi izan ditugun momentuak  
beti ditugu gogoan.  
Mauxi faltan botatzen zaitugu  
zaude gure bihotzean,  
Karakateko eguzkipean,  
kostaldeko ipar haizean,  
irribarrea marrazten dugu  
zurekin gogoratzean.**

Erre Arte Kuadrilla







Saioa Rodriguez





Albitxuri Industrialdea, 3i  
943 748 105  
info@softlan.biz  
www.softlan.eus

Gestio programak, produkzio kudeaketa,  
CRM, Business Intelligence eta  
ordutegiaren kontrolerako  
programetan gaude espezializatuak.

**Deitu eta hitz egingo dugu!**

**Urte berri on!**

**FONTANERÍA**  
**Ibámar**  
**ITURGINTZA**

**URTE BERRI ON!**

FLOREN / IBAI: 647 463 436  
ibamariturgintza@gmail.com  
Elgoibar, Gipuzkoa  
20870

**BM**  
bronymec

Termoplastiko eta konpositeetan adituak

**LAGUNAK**  
colchonería textil hogar

San Roke kalea, 20  
Elgoibar

**%30 EKO DESKONTUA**  
**NEGUKO OHE-ARROPETAN**

San Roke kalea, 20 - Elgoibar - 943 744 457 - 685 756 978 - [www.textillagunak.com](http://www.textillagunak.com)

Irten dira gure Gabonetako zozketako  
zenbaki saridunak!



- 1. saria: 1182
- Erreserba: 3113



- 2. saria: 1715
- Erreserba: 457



@aramburubixidenda  
943 742 535





Urte  
berri  
on!



ejaj  
pnv

